

KORPUSAK ANTOLATZEKO, OÑATIKO UDALA ETA OÑATZ DANTZA TALDEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.**BILDU DIRA:**

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: 15396342G / Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, JESUS IRIZAR ETXEZARRETA jauna, Oñatz Dantza Taldearen izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN: 72562596B / Helbide soziala: Kale Zaharra 34, 2).

Batak besteari hitzarmen hau izenpetzeko gaitasuna duela aitortuz, eta kontutan hartuta jarraian azaltzen diren

AURREKARIAK:

Lehenengoa.- Elkartearen xedeetako bat Oñatiko Korpus Kristi eguna antolatzea eta horren inguruan bizi den jarduera kulturala mantentzea eta sustatzea da.

Bigarrena.- Oñatiko Kultura Sailaren helburua Herriko Kultur adierazpenaren arloan parte hartzen duten herriko sortzaile eta kultur eragileekin elkarlana bilatzea eta sustatzea da.

Hirugarrena.- Bi erakundeek helburuak bat egiten dute. Hitzarmen honen bidez elkarlanean jarduteko konpromisoa berresten dute, Herriko Kultur ondarea sustatzen jarraitzeko.

Laugarrena.- Oñatz Dantza Taldea elkarteak dirulaguntza eskaera egin dio Oñatiko Udalari 2023 ekitaldiko Korpus Jaia aurrera eramateko (Sarrera erregistroa:2023-3105).

Bosgarrena.- Oñatiko Udalak, Oñatz Dantza taldea elkarteari bideratuko dion dirulaguntzak elkartearen eta udalaren arteko elkarlanean dauka oinarria. Bi erakundeek arteko lankidetzak funtsezkoa da Oñatin 2023ko Korpusak antolatu ahal izateko.

Seigarrena.- Eskaerarekin batera 2023ko Korpus Jaia bideratuko jarduera kulturala aurkeztu du Oñatz Dantza Taldea elkarteak eta bertan zehazten dira ekitaldian zehar garatuko diren ekintzak eta ekintzak gauzatu ahal izateko egin beharreko kudeaketa lanak.

Besteak beste honako hauek izango dira:

Korpus eguneko prozesioa aurrera eramateko kudeaketa lanak:

- Prozesioan ateratzen diren irudien: zainketa, konponketa eta mantenu lanak.
- Korpus eguna aurrera ateratzeko koordinazio eta kudeaketa lana.
- Prozesioan ateratzen diren erropen: garbiketa, lisaketa eta zainketa lanak.

Korpus eguneko prozesioaren kudeaketa eta koordinazio lanak:

Corpus igandea da, prozesioak eta dantzek protagonismo berezia hartzen dute. Meza hasi baino ordu erdi lehenago, San Migel elizara eramaten dira prozesioan parte hartuko duten santuen irudiak, gordeta dauden ermitetatik edo kapiletatik. Meza amaituta, prozesioa hasten da santuen irudiak banan-banan elizatik atereaz. Santuen ostean apostoluak.

Prozesioaren ibilbide guztian Santuekin batera dantzariak eten gabe ibiltzen dira batetik bestera. Eta, amaiara emateko, Foruen plazan, udaletxe aurrean, dantza ikusgarriak egiten dituzte dantzariak.

Zazpigarrena.- 2023ko Kultursa Saileko udal aurrekontuetan izendatuta dago 4.950 euroko (lau mila bederatziehun eta berrogeita hamar euro) diru partida bat, 1.0800.481.334.00.07.2023, zenbakia duena. 2023ko Korpus jaietako dirulaguntza.

Horrela beraz, azaldutako aurrekariak kontuan hartuta, erakunde biek

HITZARTZEN DUTE:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak gehienez ere 4.950 euro arteko dirulaguntza emango dio Oñatz Dantza Taldea elkarteari, 2023ko Korpus jaietako prozesioak jarduerak eta kudeaketa lanak gauzatzeko.

Bigarrena.- Oñatiko Udalaren dirulaguntza era honetara ordainduko da:

Dirulaguntzaren % 100 hau da, 4950euro, hitzarmena sinatzen den momentuan.

Hirugarrena.-Zuriketa ekonomikoa era honetara justifikatuko du Oñatz Dantza Taldea elkarteak:

Gastu bakoitzaren fakturaren kopia eta dagokion ordainketa ziurtagiria.

Gastuaren izaeragatik fakturarik ezin denean aurkeztu, salbuespen moduan onartuko dira aurkeztutako gastuak justifikatzen duten ziurtagiriak. Adibidez, Jaso izanaren agiriak elkartearen ziguilarekin, gastuaren data eta zenbatekoarekin eta hartzailearen izen-abizen, NA zenbaki eta sinadurarekin.

Administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu dirulaguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko. Oñatz Dantza Taldea Elkarteari dagozkion honako zerbitzuak kontsultatuko ditu udalak:

Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSDN-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

Eta ados daudela adierazteko eta hala jasota gera dadin behar den lege ondorioetarako sinadura digitalean adierazitako egunean sinatzen dute hitzarmen hau

Oñatiko Udalaren izenean

Izaro Elorza Arregui, Alkatea

Oñatza Dantza Taldearen izenean

Jesus Irizar Etxezarreta



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	KORPUSAK ANTOLATZEKO, OÑATIKO UDALA ETA OÑATZ DANTZA TALDEAREN
CSV/EKS:	SINA5d64036b-5078-4d89-80ba-6c5daa95f9d8